

**Kale Neurketa** <  
>SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

**OIARTZUNGO  
HIZKUNTZA-ERABILERAREN  
KALE-NEURKETA, 2011  
-EMAITZEN TXOSTENA-**

Andoainen, 2012-09-06a

 MARTIN UGALDE KULTUR PARKEA ■ 20140 ANDOAIN ■ Tel.: 943 592556 ■ [kluster@soziolinguistika.org](mailto:kluster@soziolinguistika.org)

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>2</b>
<b>2. METODOLOGIA</b>	<b>3</b>
2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia	3
2.2 'Oiartzun 2011' neurketaren fitxa teknikoa	11
<b>3. ERABILERA OIARTZUNEN, 2011. URTEAN: EMAITZA OROKORRA</b>	<b>18</b>
3.1 Elkarrizketa guztietatik erdia baino zertxobait gehiago euskaraz Oiartzunen	18
3.2 Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera maila	20
3.3 Euskararen erabilera Oiartzunen, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta	23
<b>4. ERABILERAREN BILAKAERA OIARTZUNGO ELIZALDEKO IBILBIDEAN (HERRIKO ERDIGUNEA)</b>	<b>25</b>
4.1 Euskararen erabilera oso gutxi aldatu da azken 10 urteetan (2001-2011)	25
4.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaerak	27
<b>5. EUSKAL HERRIKO, HERRIALDEKO ETA ESKUALDEKO DATUEKIKO ALDERAKETA</b>	<b>29</b>
5.1 Euskal Herriko, EAeko, Gipuzkoako eta Donostialdeko datuekiko alderaketa	29
5.2 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa	31
<b>6. ZONALDEKAKO EMAITZAK</b>	<b>32</b>
<b>7. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK</b>	<b>35</b>
7.1 Sexuaren araberako emaitzak	35
7.2 Adinaren araberako emaitzak	36
7.3 Adinaren araberako erabileraren bilakaera	39
<b>8. EUSKARAREN ERABILERA ETA HAURREN PRESENTZIA</b>	<b>41</b>
<b>9. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)</b>	<b>42</b>

# 1. SARRERA

Euskararen egoera ona den edo txarra den, hobera doan edo okerrera doan galdetzen digutenean, askotan ez dugu jakiten nola erantzun, eta sarri erantzuna bera oso modu subjektiboan ematen dugu. Zentzu honetan, gero eta garrantzitsuagoa zaigu euskararen egoera eta bilakaera modu objektiboan baloratzeko aukera ematen diguten datuak izatea, eta datu horien artean bada bat herriko euskararen errealitatea adierazteko funtsezkoa dena: kalean euskara zenbat erabiltzen den, hain zuzen ere.

Badira beste hainbat datu (eroldako ezagutza datuak, ikastetxe eta eskalategietako matrikulazio datuak...) herriko hizkuntza-egoera ezagutzeko baliagarri direnak. Datu eta joera horiek guztiak, nonbait nabarmentzekotan, herriko kaleetan besteak beste ematen den eguneroko erabileran nabarmentzen dira. Kale-erabileraren neurketak, hortaz, errealitate horren berri ematen digu modu zuzen eta objektibo batean.

Kale-erabileraren datua funtsezkoa da herri mailan hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu nahi duen edonorentzat. Euskararen aldeko sustapen-lan bat aurrera eraman ahal izateko baliabideak mugatuak izan ohi direnez, beharrezkoa zaigu premiarik larrienak zein diren ezagutzea, lehentasunak finkatzea, eta ondoren horietan eragiteko ekimenak martxan jartzea.

Neurketak, besteak beste, adin-talde bakoitzak kalean euskara zenbat erabiltzen duen esaten digu, eta horrek erraztu egiten digu ondoren lehentasunak non dauden erabakitzea. Gainera, kale-erabileraren neurketa maiztasun batekin eginez gero (urtero, bi urtez behin...), urtetik urtera gertatzen den bilakaera ezagutu ahal izango dugu, eta modu horretan herrian izaten diren hizkuntza-aldaketak gertutik jarraitu.

## 2. METODOLOGIA

### 2.1 Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren metodologia

Oiartzunen egin dugun Hizkuntza-erabileraren Neurketaren oinarri metodologikoa Euskal Herri mailan egiten den neurketan garaturikoa da, baina kasu honetan herriko berezitasunetara egokituta.

Hizkuntza-erabileraren Euskal Herriko Kale-Neurketa 1989. urtean egin zen lehen aldiz, eta geroztik lau zapabost urtean behin errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, eta 2011n. Euskal Herriko 5.000 biztanletik gorako herri guztietan eta hortik beherako batzuetan jasotzen dira datuak. Orotara 250.000 hiztunetik gora behatzen dira kalean hizketan.

Kale-neurketaren metodologia behaketa zuzena da; neurtzaileek herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen dute, ezertxo ere galdetu gabe. Hala, hiztunek ez dakitenez behatuak direnik, neurtzaileek hiztunaren joera naturala jasotzen dute. Beraz, inkestaren bidez jasotako datuen subjektibotasuna saihesten da eta emaitza fidagarriagoak lortzen dira.

#### Landa-lana

Landa-lana burutzerakoan neurtu beharreko kaleak aurrez identifikatzen dira ibilbide bat (edo gehiago) zehaztuz. Horretarako irizpide nagusia herriko kalerik jendetsuenak biltzea da: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketarako egunak eta orduak ere definitzen dira, eta hauen hautaketan gure helburua herriko biztanle guztiak (potenzialki behintzat) neurtu ahal izatea izaten da; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak izatea estatistikoki neurtuak izateko aukera.

## Elkarrizketa-hizkuntza

Ezaugarri metodologikoen artean aipatu beharreko beste bat honakoa da: neurtzen duguna, norbanakoaren hizkuntza baino, taldeko elkarrizketa-hizkuntza dela. Kaleko erabileraz ari garela, elkarrizketak dira behatzen eta zenbatzen ditugunak, eta elkarrizketok beti dira bi lagun edo gehiagoren artekoak (ezinbestean). Ondorioz, talde batean elkarrizketa bat behatzen dugunean, une horretan hizketan ari denaren hizkuntza hartzen dugu kontuan talde osoarentzat, suposatuz une horretan hizkuntza horretan ari badira, beste batean ere horrela ari direla, eta aldi berean suposatuz taldeko hiztun hori izan beharrean beste bat balitz hizketan ari dena, neurtu dugun hizkuntza berean egingo lukeela.

Kale-erabileraren neurketa izanik, hiztun-talde bakoitza une labur batean baino ez dugu behatzen eta ondorioz metodologia honekin ezin dugu taldeko kide bakoitzaren jokaera ezagutu. Dena den, hau horrela egiteko oinarri metodologikoak sendoak dira. Kanean behatzen ditugun hiztun taldeek hizkuntza jokaera finkatua izaten dute eta hau oso gutxitan aldatzen da. Neurtzen ditugunak kasurik gehienetan lagunak, familia berekoak edota hurbilekoak izaten dira. Kasu hauetan, Euskal Herrian behatu ahal izan diren hizkuntza-ohituren arabera, erabakita egoten da —inkontzienteki bada ere— zein hizkuntzatan izango den elkarrizketa.

Euskara ez dakitenen kasuan erabaki hori automatikoa da (gaztelaniaz edo frantsesez, alegia). Eta dakitenen artean, pertsona bat ezagutu eta denbora gutxira finkatu ohi da berarekin zein hizkuntza erabili. Talde batean ere antzera gertatzen da: hiztun jakin batzuen artean hizkuntza jakin bat hautatzen da eta aurrerantzean hiztun horien arteko elkarrizketak kasurik gehien-gehienetan hizkuntza horretan izango dira. Jakin badakigu hizkuntza-ohiturak aldatu ere egiten direla baina aldaketa ez da “berez” edo modu erraz batean gertatzen, eta hain zuzen aldagaiztasun horrek, hiztun jakinen arteko hizkuntza-ohiturak, oro har, egonkor izatea dakar.

## Fitxak

2011ko neurketa honetan erabilera datuak fitxa bakarrean jaso ditugu. Fitxa honen bidez, erabilera zenbatekoa den jakiteaz gain, ondorengo hiru aldagai

hauek euskararen erabileran duten eragina neurtzeko aukera izan dugu: sexuaren eragina, haurren presentzia eta neurtzen dugun taldearen adin-osaketa. Neurraldi guztietan fitxa berdina erabili da.

Ikus ondoren fitxa horien irudiak:

**HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA**

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA  
 T: 943 592 556  
 klusterra@soziolinguistika.org

HERRIA: \_\_\_\_\_

IBILBIDEA: \_\_\_\_\_

EGUNA: \_\_\_\_\_ ORDUA: \_\_\_\_\_

NEURTZAILEAK: \_\_\_\_\_

	EUSKARA	GAZTELERA FRANSESARA (Poa EH)	BESTERIK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Haurrak hitz egiten		
				(2-14 urte)	(15-24 urte)	(24-64 urte)	(65-... urte)	BAI	EZ	
01	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
02	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
03	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
04	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
05	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
06	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
07	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
08	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
09	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
10	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
11	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
12	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
13	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
14	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
15	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
16	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
17	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
18	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
19	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
20	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa
 Gizonezkoa

- 001 -

OHARRAK: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

	EUSKARA	GAZTELERA FRANSESERAK (100% EH)	BESTERIK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak	Haurrak hitz egiten		
				(2-14 urte)	(15-24 urte)	(24-64 urte)	(65-... urte)	BAI	EZ	
21	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
22	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
23	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
24	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
25	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
26	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
27	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
28	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
29	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
30	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
31	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
32	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
33	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
34	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
35	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
36	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
37	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
38	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
39	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
40	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
41	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
42	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Emakumezkoa  Gizonezkoa

Aipatutako aldagai horiek hizkuntza-erabileran suposatzen duten baldintzapenaren neurri bat atera dezakegu, esan bezala, hiztunen ezaugarriak jasotzeko aukera ematen digun fitxaren bidez.

## “Oiertzuarren” erabilera baino gehiago, Oiertzungo kaleetakoa

Muga metodologikoak tarteko, ezin dugu erabateko ziurtasunez esan neurketa honetan jasotakoa Oiertzungo biztanleen (Oiertzuarren) erabilera denik. Horren ordez, zuzenagoa da esatea Oiertzungo kaleetan jaso dugun erabilera dela hemen aurkezten duguna. Izan ere, ezin dugu ziurtatu kalean neurtzen ditugun hiztun guztiak herrikoak direnik.

Bestalde, kale-erabileraren neurketa egitean neurtzen ditugun hiztunak ez dira beti berdinak, eta ezin dugu aurreikusi kalean noiz norekin topo egingo dugun. Ondorioz, jasotako datuak adierazgarriak izanik ere, aztergai dugun aldagaia —euskararen kale-erabilera, alegia— neurri txiki batean aldagarria da. Horregatik da, besteak beste, bereziki interesgarria maiztasun jakin batekin neurketak egin eta joera nagusiei erreparatzea. Edonola ere, erabilitako metodologiak bermea ematen digu neurketa bakoitzaren emaitzetatik zenbait ondorio orokor ateratzeko.

### Adierazgarritasuna

Esan bezala hainbat aldagaik erabileran duen eragina aztertu dugu neurketan: adina, haurren presentzia, eta sexua, besteak beste. Neurraldi guztietan hiztunaren adina jaso dugu; baita hiztuna hurrekin dagoen ala ez eta hiztunaren sexua ere.

Emaitzak aztertzerakoan laginaren tamaina izango dugu kontuan, laginak gutxieneko kopuru bat bete beharko du aldagai horren eragina aztertu ahal izateko. Izan ere, aldagaia zenbat eta zehatzagoa izan, lagina txikiagoa izango da eta datuak adierazgarritasuna galduko dute. Esaterako, behatutako hiztunen adina taldeka banatzeko behar besteko lagina (neurtutako pertsona kopurua) izango dugu, baina adin-talde bakoitzean sexuaren arabera azterketa egiteko ez, aldagai bat zenbat eta gehiago deskonposatu, orduan eta lagin txikiagoa baitugu emaitzen irakurketa egiteko.



## Oharrak

Eta atal honi amaiera emateko, ikus ondoren datu-bilketarako neurtzaileek eskura izan dituzten ohar-orriak:

### HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

#### Oharrak:

- Azalpena merezi duen puntua da hau: **lau lagun elkarrekin** doazenean **normalean bat entzungo** dugu hizketan eta beste hirurak entzule izango dira (arreta gehiago edo gutxiago jarriaz, guri hori ez zaigu axola). Kasu horretan **guk fitxa-orriari lau lagun entzun ditugula jarriko dugu**.
- Neurketak irauten duen denboran **ahalik eta elkarrizketa** gehien entzungo ditugu, eta ahalik eta fitxa-orri gehien beteko ditugu.
- **Neurraldia hastean** fitxa-orri berri bat hasiko dugu, eta fitxaren goialdean agertzen diren datuak beteko ditugu neurraldiari dagokion ibilbidea, eguna eta ordua adieraziz.
- Ibilbidean zehar pertsona bera **neurraldi eta elkarrizketa berean** ez dugu behin baino gehiagotan neurtuko. Alegia, pertsona bera jende berearekin eta hizkuntza berean entzuten badugu, behin bakarrik jasoko dugu. **Aldiz, taldean partaideren bat aldatzen bada** (norbait etorri edo norbait joan) edo taldeak hizkuntza aldatzen badu (mintzakideak aldatu ez arren), hori gertaera ezberdina izango da, eta beraz, jaso egingo dugu.
- **Elkarrizketa elebidunetan** (batek euskaraz hitz egin eta besteak gazteleraz erantzuten dutenean, edo alderantziz) bi aldiz jasoko dugu elkarrizketa, bata euskaraz eta bestea gazteleraz. Ondoren bi elkarrizketak lotuko ditugu gezi batez. Ikus aurreko fitxa ereduari 04 eta 05 elkarrizketak (Adibidea: bi agure hitz egiten ari dira, bata euskaraz ari da eta besteak gazteleraz erantzuten dio).
- **Neurtzaileekin** hitz egiten dutenei ez zaie neurtuko.
- **Dudazko kasuak ez jaso**, hau da, entzundako hizkuntza zein den ziur ez dakigunean, jaso gabe utzi.
- **Inoiz ez dugu galderarik egingo, ez galdetu ezer**: ez zein adin duen, ez zein hizkuntza erabili ohi duen, ez une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen... Ez da ezer galdetu behar, ez baikara inkesta bat egiten ari; gurea behaketa bidezko neurketa denez, entzundakoa jaso behar dugu.
- Fitxa-orriaren atzealdean **oharrak** idazteko tartea dago, neurketan zehar gerta daitezkeen ezustekoak, neurtzaileen zalantzak edota bestelako informazio interesgarria jasotzeko.
- **Azken oharra**: Euskara gutxi entzutea gogorra izan arren, **beti egia jarri**. Ikerketa hau **euskararen egoera ezagutzeko tresna oso garrantzitsua** da eta errealitatea egiatzki nolakoa den jakitea interesatzen zaigu. Honetan, mesedez, zorrotzak izan.





## HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

### Datuak nola jaso

Datuak orri berezietan jasoko dira (ikus beheko fitxa-orria). **Elkarrizketa bakoitza errenkada batean adieraziko da**, eta lau datu hartuko dira kontuan:

1. **Hizkuntza:** "Euskara", "gaztelera/frantsesa (Ipar EH)" eta "besterik" (beste hizkuntzak). Hego Euskal Herrian euskara edo gaztelera ez den beste hizkuntza bat entzuten badugu "besterik" zutabea adieraziko dugu. Eta gauza bera egingo dugu, Ipar Euskal Herrian euskara edo frantsesa ez diren beste hizkuntzekin.
2. **Adin taldea:** "Haurrak (2-14 urte bitartekoak)", "gazteak (15-24 urte)", "helduak (25-64 urte)" eta "adinekoak (65 urtetik gorakoak)". Jendeak zein adin izango duen sumatzea neurtzaileen egitekoa izango da, eta gutxi gorabehera egin beharrekoa da.
3. **Generoa:** Mintzakideen sexua jasoko dugu, "emakumezkoa" ala "gizonezkoa" den.
4. Azkenik, **haurrek hitz egiten dutela** jasoko dugu, hau da, elkarrizketa entzuten dugun unean 2-14 urte bitarteko haurrak hitzun aktiboak diren "bai" ala "ez".

Neurketa nola egiten den azaltzeko **HIRU ADIBIDE** jarriko ditugu:

- Bi haur (neska bat eta mutil bat) badoaz euskaraz hitz egiten (**01 elkarrizketa**):
  1. Euskaraz **laukian** "X" markatu.
  2. Haurren zutabea, emakumezkoen **laukian** "1" adierazi eta gizonezkoen **laukian** beste "1" adierazi.
  3. "Haurrak hitz egiten" zutabea "bai" **laukian** "X" markatu.
- Senar-emazteak gaztelera hitz egiten ari dira haien artean (Ipar Euskal Herrian frantsesez), 5 urteko alaba eta 16 urteko semea beraiekin doaz baina hitz egin gabe (**02 elkarrizketa**):
  1. Gaztelera **laukian** "X" markatu.
  2. Haurren zutabea emakumezkoen **laukian** "1" adierazi; gazteen zutabea gizonezkoen **laukian** "1"; eta helduen zutabea emakumezkoen **laukian** "1" eta gizonezkoen **laukian** beste "1" markatu.
  3. Haurrak hitz egiten zutabea "ez" **laukian** "X" seinalatu.
- Bost gazte, bi neska eta hiru mutil, gaztelera ari dira (**03 elkarrizketa**):
  1. Gaztelera **laukian** "X" markatu.
  2. Gazteen zutabea emakumezkoen **laukian** "2" eta gizonezkoen **laukian** "3" adierazi.
  3. Haurrak hitz egiten zutabea "ez" **laukian** "X" markatu.



## HIZKUNTZA ERABILERAREN KALE NEURKETA

### Zer neurtu behar da?

Kalean, eta soilik **kalean dabilen jendearen arteko hizkuntza erabilera**. Leku itxiak beraz (tabernak, dendak, kiroldegia, etxeak, lantegiak, garraioak, edonolako lokalak,...), neurketa honetatik kanpo geratuko dira.

### Neurketa, ez inkesta

Kalean goazela jendeari ez zaio galdetu behar normalean zein hizkuntzatan hitz egiten duen edo une horretan zein hizkuntzatan ari den mintzatzen. **Ez galde-tu, entzun** egin behar dugu eta entzuten dugun hizkuntza jaso, jendeari ezer esan gabe. Gure helburua kaleko hizkuntza-errealitatea bere horretan jasotzea da, ahalik eta modurik objektiboen. Kalean doazenek ez dute jakin behar neurketa egiten ari garenik.

### Neurtzaileak

Neurketa **bikoteka** egingo da. Pertsona bakar batek ere egin lezake, baina ego-kiagoa da neurtzaileak binaka aritzea. Izan ere,

- Errazagoa da. Batek jendeari entzun eta besteari zer apuntatu behar duen esan diezaiola.
- Biren artean askoz hobeto disimulatzen da, eta oso inportantea da saiatzea inor ez dadin konturatu neurketa egiten ari garela. Gainerakoan, jendearen jokabide naturalak alda daitezke; isilduz, hizkuntzaz aldatuz, haserretuz,...

### Ibilbidea

Bikote bakoitzak **ibilbide jakin bat** izango du (koadernoaren atzealdean jaso da ibilbidearen mapa, kaleen izenak, neurketa egunak eta orduak). **Ibilbidea** herriko kalerik jendetsuenek osatuko dute, normalean erdiguneak (erdigunea zentzu zabalean ulertuta): erosketa-kaleak, poteo kaleak, haur jolas-lekuak, pasealeku eta parkeak, etab. **Ibilbideak** hasi eta bukatu leku berean egin beharko du, bikoteak behar bezainbat aldiz egin ahal izateko ibilbide hori, neurraldi bakoitzak irauten dituen bi ordu horietan.

Bikote bakoitza bere ibilbidean paseatzen ibiliko da. Ez dago arazorik noizbehinka eserlekuren batean eserita neurketa egiteko, eta batzuetan gainera, disimulatze-ko beharrezkoa ere izango da. Baina eserita denbora gehiegi ematea ere ez da komeni. Izan ere, helburua neurketa ibilbide guztian zehar egitea da.



## 2.2 'Oiartzun 2011' neurketaren fitxa teknikoa

### Prozedurak

Aurreko puntuan, *Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko metodologia azaldu dugu zehatz-mehatz. Hor adierazitako xehetasun guztiak baliagarriak dira *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketaren* berri emateko ere. Ez ditugu, hortaz, errepikatuko.

### Ibilbideak

Arestian aurreratu dugun moduan, ibilbide bakoitzaren nondik norakoa zehazterakoan eta definitzerakoan, herriko kalerik jendetsuenak biltzea izan da irizpide nagusia: plaza inguruak, parkeak, geltokiak, salerosketa-kaleak, eta abar. Ibilbidearekin batera, neurketa egiteko egunak eta orduak ere zehaztu ditugu, eta horiek hautatzean, herriko biztanle guztiak (potentzialki, behintzat) neurtu ahal izatea izan da gure helburua; alegia, hautatutako egun eta orduetan herritar guztiak edukitzea neurtuak izateko aukera.

Kontuan izan behar da 2011. urtean egindako neurketa berezi honek ibilbideen diseinu berria izan duela udalaren eskariz. Diseinu berriaren helburua herriko hainbat zonaldeko errealitatea hobeto ezagutzea izan da, eta helburu horrekin ahalegin berezia egin da zonalde horietan neurketa sendotzeko (neurraldi ordu-kopurua handituz, esate baterako). Nolanahi ere, zonalde edo auzo horiek biztanle-kopuruen aldetik txiki xamarrek direnez, emaitzek kontu handiz hartu beharrekoak dira.

Gaionera, metodologia (diseinua) aldatzeak zeharkako ondorioak ere baditu, horien artean garrantzizkoena ezinezko egitea aurreko neurketetan jasotako datuekin zuzenean alderatzea. Horregatik, txosten honetako hurrengo ataletan ezaugarri horien inguruko zehaztasunak ematen joango gara.

Diseinu hori kontuan hartuta, beraz, 2011ko udazkenean eginiko neurketa honetan *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa* egiteko bi bikote ibili dira Oiartzunen, honako 6 ibilbideen neurketak egiten.

1. **Elizalde ibilbidea:** Doneztebe Plaza, Aialde kalea, Arraskularre, Elorrondo Etorbidea (Mariapilarren arrandegitik) , Kiroldegiaren inguruan, Haurtzaro ikastolako parkea, Rafael Pikabea kalea, Landetxe Plaza, Donibane kalea, Putxutxoerreka kalea, Euskal Herria Plaza, Doneztebe Plaza, Manuel Lekuona etorbidea, Elizalde ikastetxeko jolastokia, Ibagain Parkea, Erriberane, Arraskularre, Doneztebe Plaza.
2. **Gurutze-Karrika-Ergoioen ibilbidea:**
  - GURUTZE: Gurutze hotela, Galdos taberna, Toki-alai taberna, kooperatibako etxeetako (Ixximu) parkea, frontoia, Bizardia.
  - KARRIKA: Karrikako Artaso elkartea (frontoiaren) ingurua, atzeko parkea, etxe adosatuen ingurua, haurtzaindegia ingurua
  - ERGOIEN: Pagoaldea, Tornola kalea, Auzokalte elkartea eta Herri Musika txokoaren ingurua, frontoa eta Pagoaldea.
3. **Altzibar ibilbidea:** Kaleberria (aparkalekuan), bi blokeen arteko eskilarak, parkea, Mikelete kalea, farmazi aurrea, Done Petri kalea, Agerrealde etxadia, Gaztelekuaren sarrera, eskola zaharra, parkea, Zelaia etxadia, Done Petri kalea, Martintxo kalea, Albisturreko parkea, Urkabealde, Kaleberria.
4. **Iturriotz ibilbidea:** Autobus geltokia, Zuberoa Jatetxea, 2 Bekosoro Plaza, Ozentzio kalea, Zirauki kalea, frontoia, Bidezarra kalea (Orma Etxea), Bekosoro Plaza, Argiñene kalea.
5. **Ugaldetxo ibilbidea:** Futbol Zelaia, Kalexa plaza, Matteo Jatetxea, Isasti Etxadi, Mendibil, Francisco Urdiñola kalea, Rafael Pikabea kalea.
6. **Arragua ibilbidean:** Bus geltokia, Lartzabal Etxadiko dorreak, Alhambra taberna, atzeko haur parkea, Topoaren ingurua, Iturrine plaza, Ganboxa bidea, Larrezabaleta kalea, Goiko Eskolatik parbulariora adosatua, beheko auzoa.



## Landa-lana




Landa-lanari dagokionez, 2011ko irailaren 21a eta urriaren 20a bitartean egin dugu, honako koadro honetan azaltzen diren neurraldi eta ordutegietan:

Lurraldea: Gipuzkoa		BIKOTE ZENBAKIA: 61 eta 48
Ibilbidea Non	Datak	Orduetgia
<b>Oiartzun 1: Elizalde ibilbidea</b>		
Ibilbide-mota: BEREZIA	Irailak 21, asteazkena	18:00-20:00
	Irailak 22, osteguna	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
	Irailak 24, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
<b>Oiartzun 2: Gurutze/Karrika/Ergoien ibilbidea</b>		
Ibilbide-mota: BEREZIA	Irailak 21, asteazkena	18:00-20:00 GURUTZE
	Irailak 22, osteguna	18:00-20:00 KARRIKA
	Irailak 24, larunbata	18:00-20:00 ERGOIEN
<b>Oiartzun 3: Altzibar ibilbidea</b>		
Ibilbide-mota: BEREZIA	Urriak 15, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
	Urriak 19, asteazkena	18:00-20:00
	Urriak 20, osteguna	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
<b>Oiartzun 4: Iturrioz ibilbidea</b>		
Ibilbide-mota: BEREZIA	Irailak 28, asteazkena	18:00-20:00
	Irailak 29, osteguna	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
	Urriak 1, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
<b>Oiartzun 5: Ugaldetxo ibilbidea</b>		
Ibilbide-mota: BEREZIA	Urriak 5, asteazkena	18:00-20:00
	Urriak 6, osteguna	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
	Urriak 8, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
<b>Oiartzun 6: Arragua ibilbidea</b>		
Ibilbide-mota: BEREZIA	Irailak 28, asteazkena	18:00-20:00
	Irailak 29, osteguna	11:00-13:00 eta 18:00-20:00
	Urriak 1, larunbata	11:00-13:00 eta 18:00-20:00



## Mapak


Ikus ondoren landa lana antolatzeko Oiartzunen erabilitako hainbat mapa:











## Unibertsoa, lagina eta emaitzen adierazgarritasuna

UNIBERTSOA: Oartzungo kaleetan entzun daitezkeen elkarrizketak.

LAGINA: behaketa egin dugun bitartean, behatu ditugun 1.399 elkarrizketek eta horietan solaskide izan diren 3.948 herritarrek osatu dute lagina.


AKATS-TARTEAREN KALKULUA (erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria):  $\pm 2,6$ koa elkarrizketen lagin osoarentzat, %95,0ko konfiantza mailan, eta  $p = 52,9$  izanik (behaturako elkarrizketen artean euskarazkoek osatu duten ehunekoa).

### 3. ERABILERA OIARTZUNEN, 2011. URTEAN: EMAITZA OROKORRA

#### 3.1 Elkarrizketa guztietatik erdia baino zertxobait gehiago euskaraz Oiartzunen

Oiartzungo kaleetan entzundako elkarrizketa guztietatik erdia baino zertxobait gehiago, %52,9 zehatzago esateko, euskaraz izan dira. Gainerakoak gaztelaniaz dira nagusiki (%45,8), eta badira beste hizkuntza batzuetan gertatzen direnak ere, %1,4, hain zuzen, 2011ko irailean eta urrian egindako neurketaren arabera.

A. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. OIARTZUN, 2011 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

Horixe da 2011ko udazkenean Oiartzungo herrian egindako neurketaren <sup>1</sup>emaitza nagusia. Neurketa nola egin dugun (erabilitako metodoa, alegia) zehatz-mehatz azaldu dugu txosten honetako 2. atalean. Gogora dezagun, besterik gabe, 1.399

elkarrizketa behatu ditugula Oiartzunen, eta 3.948 lagun izan direla guztira elkarrizketa horietako solaskide. Ikerketa sozialean <sup>2</sup>erabili ohi diren parametroetan, kopuru handia da hori 10.006 biztanle dituen herri batentzat<sup>3</sup>. Termino estatistikoetan, esan dezakegu euskarazko elkarrizketen %52,9ko datu horri  $\pm$ %2,6ko akats-tartea dagokiola, %95,0ko konfiantza mailan, unibertso osoaz hitz egiterakoan<sup>4</sup>. Oinarri sendoa dugu, beraz, herritarren hizkuntza-portaerak deskribatzeko.

**1. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. OIARTZUN, 2011**

	Kop.	(%)
Euskaraz	2.090	52,9
Gaztelaniaz	1.844	45,8
Beste hizkuntzetan	14	1,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.948</b>	<b>100,0</b>

*Iturria:* Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

<sup>3</sup> Iturria: INE, udal-errola 2011 (urtarrilak 1).

<sup>4</sup> Hizkuntzen erabileren kale-neurketetarako **Soziolinguistika Klusterrak** berariaz landutako eredu matematikoaren emaitza (ikus <http://www.soziolinguistika.org/eu/lagina/eskaera/kale-erabilera>).

## 3.2 Erabilerarena testuinguratzeko bi datu garrantzitsu: herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hortik espero daitekeen erabilera maila

Ehuneko 52,9koa da, hortaz, euskararen erabilera<sup>5</sup> Oiartzunen. Hori asko den edo gutxi den hausnartzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu, ezer baino lehen, beste bi datu aintzat hartzea: herrian euskaraz hitz egiteko gai direnen kopurua batetik (euskaldunen kopurua, alegia) eta euskaldun kopuru horretatik “espero daitekeen erabilera” bestetik. Jarraian aurkeztuko ditugu datuok.

### Oiartzuarren hizkuntza-gaitasuna

EUSTATEk 2006. urtean egindako *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistikaren* arabera, hiztunen ia hiru laurdenak, %71,7 zehatz esanda, euskaldunak ziren Oiartzunen<sup>6</sup>. Beste %15,8, euskalduna izan gabe, bazuen euskararen nolabaiteko ezagutza bat, ulermen mailan, behintzat, eta gainerako %12,5ak erdaldunak ziren,


<sup>5</sup> Berez, zentzu hertsian, “kale-erabileraz” hitz egin beharko genuke. Azalpena arintzearen ordea, “erabilera” terminoa erabiliko dugu. Izan ohar hau kontuan txosten osorako.

<sup>6</sup> Kategoria horiek euskararen jakite mailari buruz egiten diren lau galdereri (ulertzen duzu?, hitz egiten duzu?, irakurtzen duzu?, eta idazten duzu?) erantzundakoaren arabera lortu dira. Aukeran ematen diren erantzunak (ezer ez, nekez, eta ondo) konbinatuz, zazpi hiztun-kategoria sortzen dira, eta zazpi horiek bilduz, guk aurkeztutako hirurak.

		ULERTU	HITZ EGIN	IRAKURRI	IDATZI
EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Ondo	Ondo
	ERDI-ALFABETATUAK	Ondo	Ondo	Nekez	Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo	Ondo	Ez	Ez
IA EUSKALDUNAK	ALFABETATUAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ondo/ Nekez	Ondo/ Nekez
	ALFABETATUGABEAK	Ondo/ Nekez	Nekez	Ez	Ez
	PASIBOAK	Ondo/ Nekez	Ez	Ez	Ez
ERDALDUNAK		Ez	Ez	Ez	Ez

euskara ulertu ez eta hitz egiten ere batere ez zekitenak. Horiek dira Oiartzungo herritarren hizkuntza-gaitasunari buruz argitaratu diren daturik berrienak. 2011n antzeko operazio estatistiko bat egin du EUSTATEk, baina datu horiek ez dira oraindik argitaratu.

B. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA. OIARTZUN, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.

## Espero daitekeen euskararen erabilera

Zer-nolako harremana dago ezagutzaren eta erabileraren artean? Gure kasuan: Oiartzunen neurtutako erabilera (%52,9 euskaraz) zer da, handia edo txikia, bertako herritarren artean euskaldunek osatzen duten tarte hartuta? (esan bezala, %71,7 ziren euskaldunak 2006an).

Galdera horri erantzuten laguntzeko, bere garaian J.L. Alvarez Enparantza *Txillardegik* eredu matematiko bat garatu zuen<sup>7</sup>. Eredu horretan, gune jakin batean dauden euskaldunen proportziotik abiatuta, euskararen erabilerari buruzko kalkulu bat egiten du. Zehazki, zera adierazten du eredu horrek: eremu jakin

<sup>7</sup> Gaian sakontzeko, ikus Alvarez Enparantza, J. L., Txillardegik, 2001, *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen; Isasi, X eta Iriarte, A, 2002, *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 54-68 orr.

batean, bertan dauden euskaldun guztiak euskararekiko leial izanez gero (hots, euskalduna euskaldunarekin ahal duen guzti-guztietan euskaraz mintzatuz gero), eta herritarren harremanak guztiz ausazkoak izanez gero (egoera isotropikoa), zenbatekoa izango litzatekeen euskararen erabilera. Kopuru horri “espero daitekeen erabilera” (edo “erabilera isotropikoa”) esan izan zaio; hots, baldintza teoriko horiek betez gero, erabilera zenbatekoa izango litzatekeen. Eta honako formularen bidez kalkulatzen da:

$$P_B = m_B (w_2 e_x^2 + w_3 e_x^3 + w_4 e_x^4)$$

$P_B$  = euskararen erabilera maila  
 $m_B$  = euskararekiko leialtasuna  
 $e_x$  = elebidunen proportzioa  
 $w_2$  = bikoteen pisua  
 $w_3$  = hirukoteen pisua  
 $w_4$  = laukoteen pisua

Aplika dezagun formula hori Oiartzungo errealitatera.


$$P_B = 1,0 \cdot (0,60 \cdot 0,717^2 + 0,22 \cdot 0,717^3 + 0,18 \cdot 0,717^4) = 0,456 = \%45,6$$

Kalkuluak eginda, hortaz, Oiartzunerako %45,6koa da baldintza horietan “espero daitekeen erabilera”. Hortaz, Oiartzungo biztanleen arteko zorizko harreman posibleetan, eta euskaldunek euskaldunekin beti euskaraz jardunez gero, %45,6koa da espero daitekeen euskararen erabilera.

### 3.3 Euskararen erabilera Oiartzunen, hizkuntza-gaitasuna eta espero daitekeen erabilera aintzat hartuta

Jar ditzagun taula batean eta irudikatu ditzagun grafiko batean orain arte aipatu ditugun hiru datu nagusi horiek:

C. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA OIARTZUNEN, 2011 (%)



**Iturriak:** Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011*; EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2006*.

C grafikoan eta 2. taulan ikus daitekeen bezala, euskararen erabilera apalagoa da Oiartzunen, ezagutza baino. Zehazki, elebidunen kopuruaren (%71,7) azpitik gelditzen da nabarmen euskararen erabilera (%52,9). Lehen begiratu batean eman dezake euskara gutxi erabiltzen dela Oiartzunen, euskaraz hitz egiteko gai diren kopuruarekin alderatuta, betiere. Ezagutzaren eta erabileraren arteko tarte hori handia dela, alegia. Baina erabileraren eta ezagutzaren proportzioak zuzenean alderatzen diren ondorioak, sarri, okerrak izaten dira, ia ezinezkoa baita erabilera- eta ezagutza-datuak bat etortzea. Kontuan izan behar dugu ia kasu guztietan euskaldunak gaztelaniadunak ere badirela (euskaldun elebakarrak haurren artean soilik topa daitezke), eta hizkuntza bat zein bestea erabil dezaketela. Eta, jakina, euskaraz hitz egiteko gai ez den mintzakidearekin beti hitz



egino dute gaztelaniaz; mintzakide elebidunarekin, berriz, euskaraz edo gaztelaniaz hitz egin ahal izango dute. Beraz, ia ezinezkoa da euskararen erabilera ezagutzaren mailakoa izatea. Hori horrela izan dadin (erabilera eta ezagutza bat etor daitezen), bi baldintza bete beharko lirateke: euskaldunek inolako harremanik ez izatea euskaldun ez direnekin, eta euskaldunen artean ere euskara besterik ez erabiltzea.

**2. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, HORREN ARABERA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA ETA EUSKARAREN KALE-ERABILERA ERREALA OIARTZUNEN, 2011**

	(%)	Oinarria (kasu kopurua):
Hizkuntza-gaitasuna 2006 (euskaldunen %a)	71,7	Hiztunak: 9.354
Erabilera erreala 2011	52,9	Behatutako solaskideak: 3.948
<i>Espero daitekeen erabilera, 2006 (kalkulua)</i>	45,6	Hiztunak: 9.354

**Iturriak:** Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011*; EUSTAT, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006*.

Aintzat hartzeko beste erreferentzia baldintza isotropikoetan euskaldunek leial jokatzuz gero “espero daitekeen erabilera” dugu. Kopuru hori %45,6koa da Oiartzunen. Horren argitara, handi xamarra da Oiartzungo euskararen erabilera, erabilera errealak (%52,9) gainditzen baitu baldintza isotropikoetan espero daitekeen erabilera.

Dena den, ezin dugu ahaztu honako hau erreferentzia teorikoa dela eta jakin badakigula praktikan harreman-sareak ez direla ausazkoak izaten. Hots, edonork ez duela praktikan edonorekin harremanik izaten (harreman gehiago dugu gure ingurukoekin eta adin berekoekin, adibidez, eta herriko zenbaitekin ez dugu inoiz harremanik izaten). Era berean, badakigu euskaldunen leialtasuna ez dela %100ekoa, eta euskara dakitenen arteko elkarrizketak ez direla beti euskaraz izaten.

Horiek guztiak horrela izanik, erabilera erreala “espero zitekeena” baino handiagoa izateak, zeharka, zera adierazi nahiko luke: herriko euskaldunak nahiko trinkoturik bizi direla, eta euren arteko harreman-sarea nahiko bizia eta aberatsa dela. Horrela, egunerokoan euskaldunek erdaldunekin erlazio gutxiago izaki, euskararen erabilera estatistikoki espero daitekeen baino handiagoa da. Horretaz gain, euskaldunen leialtasunaren nolabaiteko seinale ere bada datu hori.

## **4. ERABILERAREN BILAKAERA OIARTZUNGO ELIZALDEKO IBILBIDEAN (HERRIKO ERDIGUNEA)**


### **4.1 Euskararen erabilera oso gutxi aldatu da azken 10 urteetan (2001- 2011)**

Metodologiari eskainitako 2.2 puntuan aipatzen genuen bezala, 2011. urtean buruturiko neurketa honetan diseinu berriak erabili dira; auzo guztiak bakarka neurtu dira eta berri bat gehitu da: Ergoien. Diseinu berri horren xedea bikoitza izan da: alde batetik, herriko hainbat auzotako errealitatea hurbilago ezagutzeko ahalegina egitea, neurketa sakonago egitea, alegia. Eta bestalde, jasotako laginaren arabera, etorkizuneko diseinua erabakitzeko informazioa eskuratzea.

Oiartzungo erdigunean erabilera neurtuz, 1989az geroztik udalerrian egin izan dira neurketak; 1989an, 1993an, eta 1997an egindakoak Euskal Herriko kale neurketarentzat burutu ziren, nahiz eta, jasotako lagina ez den herri mailarako adierazgarria. Aldiz, 2011, 2005 eta 2008. urtean neurketa bereziak egin ziren, baina arestian aipaturiko diseinu aldaketa horren ondorioz, metodoak baimentzen duen alderaketa nagusia Oiartzungo Elizalde ingurukoa da.

Horrela, Oiartzungo erdigune nagusitzat har daitekeen ELIZALDE ibilbidean ikusitako bilakaeraren berri emango dugu ondoren. Bilakaera hori 2001ko neurralditik aurrera erakutsiko dugu D. grafikoan eta 3. Taulan.

D. GRAFIKOA: EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. OIARTZUNGO ELIZALDE IBILBIDEAN, 2001-2011 (%)



**Iturriak:** Soziolinguistika Klusterrak. 2001., 2005, 2008 eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako Oñartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketetatik hartu ditugu.

3. TAULA EUSKARAREN KALE-ERABILERAREN BILAKAERA. OIARTZUNGO ELIZALDE IBILBIDEAN, 1989-2011 (%)

ELIZALDE		
	(%)	Kop.
2001	70,9	611
2005	73,4	598
2008	65,8	1.139
2011	70,2	1.694

**Iturriak:** Soziolinguistika Klusterrak. 2001., 2005, 2008 eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako Oñartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketetatik hartu ditugu.


Datuok erakusten dutenez, 2001. urtean eta 2011. jasotako euskararen erabileraren datuak oso antzekoak dira, %70,9 2001ean eta %70,2 2011n. Esan daiteke, beraz, urteotan oso antzekoa dela euskararen kale-erabilera Oñartzungo Elizalde inguruan, nahiz eta epe horretan ia hiru puntuko gorakada behatu den lehen tartean, eta, ondoren, zazpi puntuko beherakada izan duen. Azkenik, 10 urte ondoren haserako puntura itzuli dela esan daiteke euskararen kale-erabilera Elizalde ibilbidean.

## 4.2 Erabileraren eta ezagutzaren bilakaera

### Hizkuntza-gaitasunaren bilakaera

Euskararen erabileran Oiartzunen izandako ibilbidea ulertzeko interesgarria izan daiteke herritarren hizkuntza-gaitasunean izandako bilakaera kontuan hartzea. 6. taula eta grafiko honetan aurkezten ditugu herritarren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak, hasi 1986. urtetik eta 2006. urtea bitartekoak.

E. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. OIARTZUN, 1986-2006 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

Datuak irakurri aurretik, esan behar da seriea ez dela guztiz homogeneoa. Izan ere, 2006ko datuak eskuratzeko jarraitu zen metodologian aldaketa handiak gertatu ziren ordura arteko datu-bilketekin alderatuta. Aurrekoetan ez bezala, 2006koan informazioa biltzeko prozedura zuzenak askoz gutxiago erabili zituzten, eta nagusiki zeharkako iturriez baliatuz, kalkuluetan oinarritutako sistema baten bidez sortu ziren hizkuntza-gaitasunari buruzko datuak. Horregatik, gure ustez, 2006ko datuak ezin dira zuzenean alderatu 2001era artekoekin. Hala eta guztiz ere, joera orokorrari antzemateko baliagarriak zaizkigu datu horiek.

4. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. OIARTZUN, 2001-2006 (%)


	1986	1991	1996	2001	2006
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	5.923	6.264	6.674	6.762	6.819
la euskaldunak	833	913	999	1.148	1.403
Erdaldunak	1.100	1.051	1.017	988	1.132
<b>GUZTIAK</b>	<b>7.855</b>	<b>8.228</b>	<b>8.690</b>	<b>8.897</b>	<b>9.354</b>
	1986	1991	1996	2001	2006
Euskaldunak	75,4	76,1	76,8	76,0	72,9
la euskaldunak	10,6	11,1	11,5	12,9	15,0
Erdaldunak	14,0	12,8	11,7	11,1	12,1
<b>GUZTIAK</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak.

Datuok erakusten dutenez, Oiartzungo udalerrian euskaldunen ehunekoak hiru puntu behera egin du azken 25 urteetan, eta datu horrek ziur asko baldintzatuko du euskararen kale-erabileraren gorakorik ez gertatzea.

Bestalde, hemen alderatzen ari garen datuak ez dira erabat konparagarriak Udalerriko biztanle guztien euskara-gaitasunaren inguruko datuak ELIZALDE ibilbideko erabileraren bilakaeraren parez pare jartzen ari garelako. Nolanahi ere, muga hori kontuan hartuta adierazgarria izan daitekeelakoan gaude.

F. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNAREN BILAKAERA. OIARTZUN, 1986-2006 (%)




Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak eta Estatistikak eta Soziolinguistika Klusterrak. 2001., 2005, 2008 eta 2011. urteetako datuak Udalaren eskariz egindako Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketetak.

## 5. EUSKAL HERRIKO, HERRIALDEKO ETA ESKUALDEKO DATUEKIKO ALDERAKETA

### 5.1 Euskal Herriko, EAeko, Gipuzkoako eta Donostialdeko datuekiko alderaketa

Ondorengo grafikoan, 2011. urteko kale-neurketak hainbat lurralde-eremutan eman zituen emaitzak aurkeztuko ditugu. Ikus daitekeen bezala, Oiartzungo kaleetan euskara gehiago erabiltzen da (%52,9) Donostialdean eta Gipuzkoan baino (%20,6 eta %32,7 hurrenez hurren), eta zer esanik ez EAEn (%16,1) eta Euskal Herrian (%13,3) baino.

G. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA. EUSKAL HERRIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA, GIPUZKOA, DONOSTIALDEA ETA OIARTZUN, 2011 (EUSKARAZ %)




**Iturria:** Soziolinguistika Klusterra, Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011 eta Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.

Datu horiek apur bat testuinguratzeko, kontuan har ditzagun eremu bakoitzeko herritarren hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-gaitasun horren arabera “espero daitekeen erabilera”. Datu horiek H grafiko honetan aurkezten dira. Ikus

daitekeenez, Oiartzunen euskaldun gehiago daude, oro har, aztertutako gainerako eremuetan baino, eta, hortaz, handiagoa da “espero daitekeen erabilera” eta handiagoa da, azkenik, erabilera erreala ere.

H. GRAFIKOA: HIZKUNTZA-GAITASUNA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. EUSKAL HERRIA, EAE, GIPUZKOA, DONOSTIALDEA ETA OIARTZUN, 2011 (%)




**Iturriak:** erabilerarako, **Soziolinguistika Klusterra**, *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011* eta *Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011*. Hizkuntza-gaitasunerako, **Soziolinguistika Klusterra**, *Euskararen Datu Basea* eta **EUSTAT**, *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006*.

**Oharra:** Euskal Herriko hizkuntza-gaitasunaren datua (eta espero daitekeen erabilerarena) 2001. urtekoak dira.

## 5.2 Inguruko hainbat herrirekiko alderaketa

Ikusi dugu, oro har, euskara gehiago erabiltzen dela Oiartzunen, Donostialdean eta Gipuzkoan baino. Aldera dezagun orain, zehatzago, Oiartzungo egoera inguruko bi herritakoekin.

I. GRAFIKOA: EZAGUTZA, ERABILERA ETA ESPERO DAITEKEEN ERABILERA. HERNANI, USURBIL ETA OIARTZUN, 2011 (%)



**Iturriak:** erabilerarako, **Soziolinguistika Klusterra**, *Hernaniko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011* eta *Euskal Herriko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011*. Hizkuntza-gaitasunerako, **EUSTAT**, *Biztanleriaren eta Etxebizitzen Estatistika, 2006*.

Oiartzungo datuak Usurbilgoekin eta Hernanikoekin alderatuz gero ikus daiteke hizkuntza-gaitasunaren aldetik Oiartzun dela euskaldunena: dezente gehiago dira euskaraz hitz egiteko gai direnak Oiartzunen (%72,9) Usurbilen (%69,9) eta Hernanin (%55,8) baino. Horregatik, “espero daitekeen euskararen erabilera” ere handiagoa da.

Aldiz, erabilera erreal, Oiartzunen (%52,9) bi herri horien artean kokatzen da, Usurbilgo %61,9 eta Hernaniko %39,1 artean. Hau da, datuek iradokitzen dute Usurbilen, oro har, Oiartzunen baino euskararekiko atxikimendu handiagoa dutela erabilera erreal eta gaitasun-maila elkarren hurbilago daudelako Usurbilen (%61,9-%69,9) Oiartzunen baino (%52,9-%72,9).




## 6. ZONALDEKAKO EMAITZAK

Herritarrek leku publikoetan zer hizkuntza erabiltzen duten neurtzea xede izanik, herriko bizitza soziala gertatzen den zonaldeetan egin dugu behaketa. Zonalde horiek zehazteko, udalerriko herritarren harreman-gune nagusiak non kokatzen diren zehaztu ohi da, eta behin zonalde horiek definitu ostean, bakoitzaren barruan zer ibilbideri jarraitu behar zaion erabaki, udaleko teknikariek elkarlanean. Oiarzunen kasuan, sei eremutan banatu dugu udalerria, lehen esan bezala diseinu berri eginez.

Emaitzak 5. taula eta J. grafiko hauetan aurkezten ditugu. Bertan ikus daitekeen bezala, dezenteko aldea dago eremuen artean, bereziki Elizalde ibilbidean jasotako %70,2 eta Arraguako ibilbidean neurtutako %16,1aren artean. Esan daiteke, oraingo diseinu honetan auzoetako argazki zehatzagoa lortu dugula baino gune guztiak batera biltzerakoan emaitza (udalerriko osokoa) erdaldunagoa dela.

J. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011 (EUSKARAZ, %)



**Iturria:** Sgoziolinguiстика Klusterra, *Hernaniko hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

Elizalde eta Iturrioz ibilbideetan entzuten da gehien euskaraz alde handiarekin, %70,2 eta %63,3 hurrenez hurren. Beste muturrean ditugu Altzibar (%34,3) eta Arragua; auzo horretan neurtutako behaketa %16,1eko datua eman du euskararen erabilerarako. Ibilbide horietan neurraldi bereziak egin izanak lagun dezake ziur asko etorkizuneko bilakaerak hobeto ulertzen.

5. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011


	GUZTIAK	Elizalde	Gurutze- Karrika- Ergoien	Altzibar	Iturrioz	Ugaldetxo	Arragua
Euskaraz	2.090	1.190	113	190	307	188	102
Gaztelaniaz	1.844	495	103	361	178	175	532
Beste hizkuntzetan	14	9	2	3	0	0	0
GUZTIRA	3.948	1.694	218	554	485	363	634
Euskaraz	<b>52,9</b>	70,2	51,8	34,3	63,3	51,8	16,1
Gaztelaniaz	<b>46,7</b>	29,2	47,2	65,2	36,7	48,2	83,9
Beste hizkuntzetan	<b>0,4</b>	0,5	0,9	0,5	-	-	-
GUZTIRA	<b>100,0</b>	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Oinarria (kasu kopurua)	3.948	1.694	218	554	485	363	634

*Iturria:* Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

Gurutze-Karrika-Ergoien ibilbidearen kasuan komeni da honako zehaztasuna kontuan izatea: datuok ibilbide bakara modura tratatu ditugu orain arte, baina neurketak hiru ibilbide desberdin horietan egin dira, eta ondorengo grafikoan erakutsiko dira.

2008an hiru guneak batera aztertu ziren. Batetik besterako distantzia handia denez neurtzaileek autoz ibili ziren. Oraingo honetan, aldiz, bi orduko neurketak egin dira auzo bakoitzean, datu espezifikoak auzo bakoitzarentzat jasoz. Auzo horien bilakaera ezin dugu aztertu, beraz, datu-bilketa modua aldatu egin delako.

K. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. GURUTZE, KARRIKA ETA ERGOIEN IBILBIDEAK, 2011 (EUSKARAZ, %)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011

6. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ZONALDEAREN ARABERA. OIARTZUN, GURUTZE, KARRIKA ETA ERGOIEN IBILBIDEAK, 2011 (EUSKARAZ, %)

	Gurutze	Karrika	Ergoien	Gurutze-Karrika-Ergoien
Euskaraz	27	45	41	113
Gaztelaniaz	31	15	57	103
Beste hizkuntzetan	0	0	2	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>58</b>	<b>60</b>	<b>100</b>	<b>218</b>
Euskaraz	46,6	75,0	41,0	51,8
Gaztelaniaz	53,4	25,0	57,0	47,2
Beste hizkuntzetan	-	-	2,0	0,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Oinarria (kasu kopurua)	58	60	100	218

Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Oartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.


Datuek desberdintasun deigarriak erakusten dituzte hiru zonaldeetan (Gurutze, Karrika eta Ergoien). Baina momentuko argazkiaren irudi bana ematen duten arren, jasotako lagina oso txikia da datu erabat fidagarritzat hartzeko: Gurutzen 58 lagun, Karrikan 60 eta Ergoien 100. Metodologikoki akats-tartea oso handia denez datuok orientatiboak besterik ez dira.

## 7. HIZTUNEN EZAUGARRIEN ARABERAKO DATUAK

### 7.1 Sexuaren araberako emaitzak

Ez dago alde handirik gizonezkoen eta emakumezkoen hizkuntza-portaeren artean. 2011ko datuetan, puntu bakarreko aldeak ez baitu ematen bereizketa nahikorik egiteko arrazoirik.

L. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011 (EUSKARAZ, %)



**Iturria:** Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2011.*

7. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SEXUAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011


	GUZTIAK	Emakumezkoak	Gizonezkoak
Euskaraz	52,8	52,4	53,5
Gaztelaniaz	45,8	47,3	46,1
Beste hizkuntzetan	1,4	0,3	0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Oinarria (behatutako solaskideak)	( 3.948)	(2.074)	(1.874)

**Iturria:** Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabilera kale-neurketa, 2011.*

## 7.2 Adinaren araberako emaitzak

Alde esanguratsuak antzematen dira hizkuntza-portaera adinaren arabera aztertuz gero. Datuak ikusita, joera argia antzematen da Oiartzunen: zenbat eta belaunaldi gazteagokoak izan, orduan eta gehiago erabiltzen dute euskara. Horrela, haurrak (2-14 urte) eta gazteak dira euskara gehien erabiltzen dutenak: 2011ko neurketan, Oiartzunen behatutako gazteak dira (%75,1) euskaraz gehien egiten dutenak. Ondoren datoz haurrak (%65,7). Atzetik datoz helduak eta adinekoak, %43,3ko eta %47,2ko erabilerarekin hurrenez hurren. Aldeak, hortaz, handiak dira belaunaldi gazte eta helduen artean.

M. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011 (EUSKARAZ, %)



**Iturria:** Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

8. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. HERNANI, 2011

	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
Euskaraz	52,8	65,7	75,1	43,3	47,2
Gaztelaniaz	45,8	34,1	3,5	56,2	52,8
Beste hizkuntzetan	1,4	0,3	0,4	0,5	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
Oinarria (behatutako solaskideak)	( 3.948)	(1.186)	(285)	(1.861)	(616)


Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

Oro har adinaren araberako hizkuntza-portaera Euskal Herrian honakoa izan ohi da eremu gehienetan: hurrek erabiltzen dute gehien euskara, ondoren gazteek, gero helduek eta, azkenik, adinekoek. Esan beharrik ez dago, belaunaldi berriak etorkizunaren aitzindari eta aurrerapen diren heinean, banaketa hori dela egokiena euskara berreskuratzeko. osotasunean harturik gaur egun antzematen denarekin, izan ere haurrak izan ohi dira gazteak baino gehiago erabiltzen dutenak oro har.

Oiartzunen ez da zuzen-zuzen betetzen hurrenkera hori, gazteek haurrak baino gehiago hitz egiten dutelako euskaraz, gure datuen arabera. Baina, kasu honetan oso hurbiletik begiratzekoa da ikerketa honetan behaturiko gazte-kopurua txikia delako, hau da, gazteen lagina oso txikia delako (285 lagun behaturikoak). Beraz, datua zuhurtziaz hartu beharrekoa dela iruditzen zaigu.

Adinaren araberako datuen azterketa honetan zertxobait sakontzeko helburuarekin ekar ditzagun hona banaketa horretan populazioan dagoen hizkuntza-gaitasunaren inguruko banaketa.

N. GRAFIKOA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. OIARTZUN, 2006 (%)



Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.

9. TAULA: EUSKARAZKO HIZKUNTZA-GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. OIARTZUN, 2006

	GUZTIAK	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)	(kop.)
Euskaldunak	6.823	978	788	4.039	1.018
Ia euskaldunak	1.408	213	126	980	89
Erdaldunak	1.123	47	79	811	186
<b>GUZTIAK</b>	<b>9.354</b>	<b>1.238</b>	<b>993</b>	<b>5.830</b>	<b>1.293</b>
	(%)	(%)	(%)	(%)	(%)
Euskaldunak	72,9	79,0	79,4	69,3	78,7
Ia euskaldunak	15,1	17,2	12,7	16,8	6,9
Erdaldunak	12,0	3,8	8,0	13,9	14,4
<b>GUZTIAK</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>

Iturria: EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estatistika, 2006.

Ikus daitekeen bezala, euskaraz egiteko gai diren lagun-portzentajea oso antzekoa da haur, gazte eta adinekoen artean, %80 ingurukoa. Esan daiteke oro har hartuta oso handia dela Oñartzunen euskaraz hitz egiteko gai diren lagunak, are gehiago kontuan hartzen badugu ia-euskaldun bezala bildu diren biztanle guztiak. Helduen kasuan jaisten da pixka bat gaitasun hori %70 inguruan kokatuz. Nolanahi ere gaitasun oso handia ikusten da.

## 7.3 Adinaren arabera erabileraren bilakaera


Adinaren arabera hizkuntza-portaeraren bilakaerari erreparatuz, dokumentu honetako 4. puntu egin bezala ELIZALDE ibilbideko datuak alderatuko ditugu, ikusteko 2001 eta 2011. urte bitarteko bilakaera ikusteko. Kontuan izan behar da aurreko atalean Oartzun udalari osoko datuak eman ditugula adinaren arabera banatuta, eta orain, aldiz, zonalde euskaldunena den ELIZALDE ibilbideko datuak emango ditugula.

10. TAULA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ADINAREN ARABERA. OIARTZUNGO ELIZALDE IBILBIDEA, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
2001	86,5	62,3	58,0	72,7
2005	81,9	71,0	65,5	88,4
2008	87,5	82,7	57,0	44,5
2011	88,8	84,8	56,7	66,1
<b>Behatutako kopurua</b>	<b>Haurrak</b>	<b>Gazteak</b>	<b>Helduak</b>	<b>Adinekoak</b>
2001	244	138	207	22
2005	166	76	287	69
2008	417	75	519	128
2011	518	164	832	180

**Iturriak:** Udalaren eskariz egindako *Oartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketak*. SEIk egin zuen 2001ekoa eta *Soziolinguistika Klusterrak* 2005ekoa, 2008koa eta 2011koa.

O. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA ADINAREN ARABERA. OIARTZUNGO ELIZALDE IBILBIDEA, 2001-2011 (EUSKARAZ, %)



**Iturriak:** Udalaren eskariz egindako *Hernaniko hizkuntza-erabileraren kale-neurketak*. SEIk egin zuen 2001ekoa eta *Soziolinguistika Klusterrak* 2005ekoa eta 2011koa.




Hamar urteko bilakaeran aipatzekoa da hurrek bi puntu baino gehiago igo dutela euskararen erabilera, eta hori garrantzizkoa da abiapuntua oso handia baitzen dagoeneko: 2001ean hurren erabilera %86,5ekoa izan zen eta 2011an %88,8koa izan da Oiartzungo Elizalde ibilbidean. Helduen kasuan, aldiz, hamar urteotan bi puntuko jaitsiera neurtu den arren ez dirudi oso esanguratsua denik.

Gazteen kasuan datuek igoera garrantzizko bat erakusten dute, 2001eko %62,3tik 2011ko %84,8ra. Aurreko atalean esan dugun bezala, gazteen artean jasotako lagina oso txikia da, eta horregatik esan dezakegu igoerarako joera egon badagoela baina datu zehatz hori etorkizuneko neurketek baieztatu beharko dutela.

## 8. EUSKARAREN ERABILERA ETA HAURREN PRESENTZIA

Nola aldatzen da hizkuntzen erabilera solas-taldea era batekoa edo bestekoa izan? Zehazki, haurrak eta nagusiak (gazte, heldu zein adindu) elkarrekin nahasian aritu edo ez, horrek ba al du eraginik hizkuntza baten edo bestearen aldeko hautuan? Galdera horiei erantzuten laguntzeko informazioa aurkezten dugu honako grafiko eta taula honetan

P. GRAFIKOA: HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, SOLAS-TALDEAREN OSAERAREN ARABERA. OIARTZUN, 2011 (EUSKARAZ, %)



**Iturria:** Soziolinguistika Klusterra, *Oiartazungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011.*

Datuak ikuspegi horretatik aztertuta, argi geratzen da zein den joera nagusia: hizkuntza-portaerak aldatu egiten dira solas-taldearen osakeraren arabera. Zehazki, nagusiek, euren artean ari direnean (haurrik gabe), askoz ere gutxiago erabiltzen dute euskara, haurrekin ari direnean baino. Horrela, nagusien arteko kale-elkarrizketen artean %42,7 neurtu dugu euskaraz ari zirela. Haurrekin taldeak osatzen direnean, aldiz, %61,7an entzuten da euskaraz hitz egiten.

Nolanahi ere aipagarria da ikustea euskaraz gehien hitz egiten dutenak haurrak direla, eurak bakarrik daudenean %68tan.

## 9. DATU NAGUSIEN IRAKURKETA (LABURPENA)

Hona hemen 2011. urteko udazkenean, Oiartzungo Udalaren eskariz, Soziolinguistika Klusterrak egindako *Oiartzungo hizkuntza-erabileraren kale-neurketa, 2011* ikerketaren ondorio nagusiak:

- Gure behaketaren arabera, %52,9koa izan da Oiartzunen euskararen erabilera. Gainerakoetatik gehienak gaztelaniaz izan dira (%45,8) eta %1,4a beste hizkuntza batzuetan.
- Oiartzungo euskararen erabileraren kale-neurketan izandako aldaketa metodologikoez ez dute baimentzen aurrez egindako emaitzekin alderaketa zuzenak egitea. Horregatik, soilik alderatu dira Elizalde ibilbideko datuak.
- Datu horien arabera, Elizalde ibilbidean oso gutxi aldatu da euskararen kale-erabilera azken 10 urteotan, %70 inguruan baitago bai 2001ean (%70,9) eta baita 2011. urtean (%70,2).
- Euskara gehiago egiten da Oiartzungo kaleetan, Euskal Herrikoetan, Gipuzkoakoetan edo Donostialdekoetan baino.
- Aldiz, ezagutza-maila (euskaraz egiteko gaitasuna) altuagoa izan arren Oiartzunen (%72,9) gutxiago erabiltzen da Oiartzunen (%52,9) Usurbilen (%69,9) baino, eta Hernanin (%39,1) baino gehiago.
- Oiartzunen garrantzi berezia du zonaldekako emaitzak arretaz aztertzea. Desberdintasun esanguratsuak daude zonalde batzuetatik bestera, eta oso kontuan izan behar dira datu orokorrak irakurtzeko orduan.

- Elizalde eta Iturrioz ibilbideetan entzuten da gehien euskaraz hitz egiten alde handiarekin, %70,2 eta % 63,3 hurrenez hurren. Gutxien, aldiz, Altzibarren (%34,3) eta Arraguan (%16,1).
- Adinaren banaketa kontuan hartuta haurrak eta gazteak dira euskaraz gehien egiten dutenak Oiartzunen. Kasu honetan deigarria da gazteek haurrak baino gehiago egitea (haurrek %65,7; gazteek %75,1). Baina kontuan izan behar da kasu honetan, gazteen lagina akaso txikiegia dela konparaketa zuzena egiteko. Beraz, hurrengo neurketek erakutsiko dute datu horren garrantzia.
- 2011ko neurketaren arabera, haurrek maila bertsuan erabiltzen dute euskara nagusiekin daudenean edo eurak bakarrik daudenean; nagusiek, berriz, gehiago erabiltzen dute euskara hurrekin daudenean, nagusi artean soilik daudenean baino.